

Tierra fria

Egilea: Aitor Iturbe

Erdi Aroa amaitzear zegoen eta mundua txiki geratu zen. Aurkikuntzen garaia hasi zen; portugesek eta espainolek -ingelesek eta frantsesek gutxixeago- itsaso guztiak zeharkatu zituzten. Euskaldunak, Gaztelako erregearen aginduetara, ez ziren atzean gelditu. Itsas arotz eta marinel trebeak, Fernando eta Isabelen erregealdian lehenik eta Inperio berriaren garaian geroxeago, ezinbestekoak bihurtu ziren.

Ordukoak dira Colonen bidaiak (1492-1504) eta Magallanesen -zergatik ez Elcanoren-lehen bidai munduaren inguruan (1519-22).

Gortek esploratzaile ausartez bete ziren, asko eta asko Ekialde Urrunera, Txinara (Cay) heldu nahian. Portugaldarrek, denei aurrea hartuz, aspaldi bilatu zuten bidea Afrika inguratuz, baina ibilbide hori saihestu behar zen eta beste hobe bat topa. Ez zegoen beste modurik, Ipar Hemisferioko itsasoak –eta lurrak- esploratu behar ziren.




1527



Abante Ternuara



Ternua hitza Piarres Etxeberrik jada 1677an, "Itsasoco nabigacione coa" liburuan, toponimo bezala erabili zuen.



Ternuaren aurkikuntza

Terranova, Newfoundland, Terreneuve

Bikingoek aspaldi aurkitu zutela dirudi, baina ahaztuta geratu ziren bidaia horiek. Colonen aurkikuntzak besteen gutizia piztu zuen eta Ekialde Urrunerako bide berriaren bila Ipar Amerikako lurraldeekin egin zuten topo behin eta berriro.

John Cabotekin hasiko gara. Giovanni Caboto italiarrak ingelesantzat egiten zuen lan eta 1497an Ternuara heldu zenean makailaua otzarekin harrapatu ahal zela esan omen zuen ("the sea there is full of fish that can be taken not only with nets but with fishing-baskets,"), baina historialarien ustez ingelesak ez ziren hara joan arrantzan, kala nahikoak eta hurbilagoak Islandian zituztelako. 1500 eta 1502an portugesen txanda heldu zen. Corte Real anaiak handik ibili ziren, baita galdu ere. Beranduago frantsesak eta espainolak agertu ziren: Jehan Denis pilotua 1506an eta Thomas Aubert kapitaina 1508an, eta Frantziako erregearen zerbitzura Giovanni Verrazano

1524an eta Jacques Cartier bretoia (1534-42). Amerika aurkitu berri zen eta espainolak lanpetuta zeuden. Espainiako erregearen aginduetara jarri ziren Juan Agramont lleidarra, 1511n ustezko bidaia egin zuena -antolatu bai, behintzat-, eta Esteban Gomez portugaldarra 1525ean abiatu zena. Horiek biak baino ez dira ezagutzen.

Michael Barkham Huxley historialariak dionaren arabera 1515erako portugesak, normandiarrak eta bretoiak arrantzan zebiltzan handik. Iparraldeko euskaldunak ere hurbilduko ziren Ternuara, baina 1520-21ekoak ditugu lehen dokumentuak. Hegoaldeko euskaldunen artean, berriz, errekorra 1531 eta 32ko bidaiek dute. Izan ere, 1531ko bidai horretako kapitaina lekeitiarra zen, Pero Ruiz de Avitera eskribaua eta mutrikuar baten "Trinidad" ontzia pleitatu zuen balea eta bakailao arrantzarako.

Harrezkero Ternuarako bidaiak ez ziren faltako.



Continoren planisferioa. 1502, egile ezezaguna.

MAPAK

Mapetan antzeman daiteke gero eta hobeto ezagutzen zirela lurralde horiek. Lehenengo mapek, esaterako Continoren 1502koak, akats larriak zituzten. Nabigatzaileek kostalde horiek denbora gutxian hobeto ezagutu bazuten ere kostatu zitzaizen Ipar Amerika Asiatik banatzea eta Ternua irlatzat hartzea. Kontuan izan behar da, baita, gehienetan mapak enkar-guz egiten zirela eta bezeroaren (Espainia, Frantzia...) komenentziara.

1500

Juan de la Cosa (espainiarra). Ez da Ipar Amerikarik agertzen Bezeroa: Espainia.

1502

Contino (egile anonimoa). Lehenengoz agertzen da Ternua. Gaspar Corte Realek aurkitu zuela (eta bigarren bidaitik ez zela bueltatu) dio mapan bertan. Egilea portugaldarra zenez Tordesillaseko itunean adostu zuten marraren eskumaldean jarri zuen lurralde berri hau (Tierra del Rey de Portugal) Atlantiko erdian. Bezeroa: Portugal.

1507

Waldseemuller (alemaniarra) (Universalis Cosmographia). Lehenengoz agertzen da America hitza. Gainera, kontinente gisa agertzen da, ez Asiaren zati legez.

1529

Diego Ribeiro (portugaldarra). Esteban Gomezen 1525eko bidaiari oinarritua. Bere garaian onena, baina oraindik Ternua ez da irla legez agertzen. Tierra de Labrador, Tierra Nova de Corte real, Tierra de Estevan Gomez... agertzen dira. Ez zebilen gezurretan: *Tierra Nova de Cortereal en la qual no hay otro provecho que pescaria de bacalhau xxx mucha mader de pinos/ Tierra del Labrador la qual descubrieron los yngleses de la villa de bristol en la qual no allaron cosa de ningun? probecho.* Bezeroa: Espainia.

1507

Johannes Ruysch (holandarra). Ternua Asiarekin lotuta agertzen da. Bakailaoa aipatzen da. Arrakasta eta hedapen handikoa izan zen.

c. 1542-44

Dauphin edo Harleian (egile anonimoa). Dieppeko eskolako. Cartierren bidaietan oinarrituta. Cartierrek irla zela frogatu zuen. Bezeroa: Frantzia.

1546

Pierre Descelier (frantsesa). Dieppeko eskolako. Hainbat munduko mapa prestatu zituen: 1543, 46, 50, 53, 58.

1504

Pedro Reinel (portugaldarra). Ez da zehatzegia, baina Continorena erraz hobetzen du. Latitudea agertzen den lehenengo mapa da hau. Bezeroa: Portugal.

1506

Nicolo Caveri (italiarra). Seguruenik Continoren mapan oinarritua.

1513

Piri Reis (turkiarra). Colonen mapa batean oinarritua. Bezeroa: Turkia.

1527

Visconte Maggiolo (italiarra). Verrazanoren 1524ko bidaiari oinarritua. Ternua ez da irla legez agertzen. Bezeroa: Frantzia.

1547

Vallard chart (egile anonimoa, antza kartografo portugaldarra). Dieppeko eskolako.



Ternua eta euskaldunak

Euskaldunak bale -eta bakailao- arrantzan aitzindariak izan zirela ukatzen duena gezurretan dabil, baina Colonen aurretik Ternua ezagutu arren, ezkutuan mantendu genuela dioena ere ez dabil hobeto. Eztabaida antzua da dokumentazioak ez du halakorik baieztatzen eta. Ez duela ezeztatzen aukerak ez du balio. Posibilitate eta hipotesien erreinuan, zer ez da posible bada! Gizaki guztiok dugu premia hori, citius, altus, fortius! Gu geu ere, Lekeitiarrok lehengotarikoak izan ginela ezagutaraztera gatoz, hori bai, eskuan dokumentuak dakartzagula.

Euskaldunon -eta euskaldunak ez zirenen- meritua ez zen aurkikuntza izan. Horrenbeste meritu zuen, gehiago agian, orduko ontzietan eta halako eguraldi erasokorrari aurre eginez etxetik milaka miliatara arrantzan egitea. Eta ez ziren biziak bakarrik arriskuan jartzen zirenak; dirutza handiak zeuden jokoan, astronomikoak, andaluzak bezain esajeratuak bagina.


Barkham Huxley ama-semeak ikertu dute Ternuako epopeia hori. Epopeia, bai, gerrako balentrien pare. Gaur egun ere ez zen abentura makala izango!

Hasiera batean bakailaoa zen arrantza nagusia, baleatan ere egiten zen arren. Nao edo galeoi hauek, bakailao-ontzizat hartuko ditugu, ez ziren handiegia, Irlandarako joaten ziren berberak, akaso tripulazio haiziagoarekin.

Pixkanaka balea-arrantza nagusituz joan zen. Irabaziak handiagoak ziren, baina kostuak ere bai. Ontziak handitu egin ziren eta balea-arrantzarako espezializatu ziren aurrerantzean. Kanpaina bi antolatzen ziren beraz: bakailaotan (martxo edo apiriletik irail edo urrira arte) eta baleatan (baleatatik hile bat edo bi beranduago bueltatzen ziren). Ez gara luzatuko, lehenago ere hitz egin dugu Ternua eta bale arrantzaz eta. Gehiago jakiteko Barkham Huxley-ren lana duzue eta propaganda apur bat baimentzen badiguzue Kurikeko lehen zenbakiko "Beha kaleko altxorra" gomendatuko genizueke.



Shackletonen bidaia, Endurance izotzean preso, 1914. Hego Poloa.



1579an Martin Oiarzabal kapitain ziburutarrak bere itsas-gidan Ternuari buruzko lehen datuak bildu zituen, "Les voyages aventureux du Capitaine Martin de Hoyarsal, habitant du çubiburu". Pierres Detcheverryk 1677an osatu eta hobetu egin zuen informazioa eta gainera euskaraz idatzi zuen, "Liburu hau da ixasoco nabigacione coa".

*Ternua da montu hotza,
Enemu triste annotza,
Lobatzen ez den lunna,
Neguan bethi elhunna.*

"No contento con lo de la tierra, van cada año sus naturales con muchas naos destes puertos para Terranova, partiendo por el mes de Abril, y tornando por el de Setiembre, y buelven cargados del pescado, llamado Vacallao, del qual aun la tierra mesma de Terranova, es llamada de otro nombre, tierra de Vacallaos. De donde tambien, aunque un mes o dos mas tarde, vienen muchas naos cargadas de grassa, llamada comunmente azeyte de Vallena, por hazerse del unto de las Vallenas en calderas derretido. De las quales ay en aquella frigidissima tierra, grande abundancia, con que no solo algunas tierras de España se bastecen, para alumbrarse y labrar paños, y para otras muchas cosas, pero aun las de Flandes e Inglaterra, y otras grandes provincias, y aun este azeyte es muy medicinal, con que aviendo hecho algunas experiencias, se ha hallado bien". "Compendio Historial" Esteban de Garibay, Amberes 1571.



Esteban Garibai historialaria, (1533-99). "Compendio historial" Esteban de Garibay, 1571.

Ternua eta lekeitiarrak

Aipatu izan dugu lekeitiarrak Ternuan izan ginela. 1531an P^o Ruiz de Avitera lekeitiarra, eskribaua eta kapitaina bera, Mutrikuko ontzi batean joan zen bertara.

1532an hemengo ontzi bat joan zen. Nieto batxilerraren (medikua) eta Juan Vergararena zen. Elizako liburu kontuetan lehenengoz agertuko den lehenengo aipamena da (byaje de bacallaos).

Hurrengo urtean (1533-11-22) Kofradiako dokumentazioan lehenengoz agertuko da Terranoba hitza. KOFRADIA L1D23 *“otrosy en quanto a las naos o nabios o carabelas que de adelante fueren a la pesca de yrlanda o aran o Tierra noba ayan de pagar e paguen el mareaje de San p^o a medias...”*

1531, 32, 33... Ez dago, beraz, dudarik hamarkada horretan handik ibili ginela, eta orain badakigu, eta jakiteko zara, 1527an ere joan ginela. Baten batek Coloni aurrea hartzea pentsatu badu hor konpon! Baliteke 27a baino lehentxoago joan izana, baina ez dago **dokumenturik** hori baieztatzeko.

Baliteke diogu, ez dugulako dokumentazio guztia, esaterako 1523, 24, 25, 26, eta 28ko notaritza protokoloak galduta daude. Gainera, eskribau baten dokumentuak bakarrik heldu zaizkigu, eta hainbat eskribau zeuden lanean orduan.

Hala ere, ezin da ukatu heldu zaigun dokumentazioan (Elizako, Udaleko Kofradiako edo Notaritzako paperetan) ez dela Ternuarik agertzen.

Horrez gain, badaukagu beste arrazoiz batzuk pentsatzeko —ez baieztatzeko— ez ginela goizegi ibili handik.

Gerra. Gerrak ez dute laguntzen (1521-26ko Frantziaren kontrako lehen gerra), baina egia da, baita, 1527an lekeitiarrak Ternuan hotzak akabatzen zeuden artean erromatarrak bero-berotan zeudela.



“1527ko Erromako sakeoa” Dirck Volckertz Coornhert (Maarten van Heemskerck jarraituz). 1555. Grabatua.

Zergak. Lekeitioko portura sartzen-irteten ziren produktu guztiei zergak ezartzen zitzaizkien. Ezagutzen ditugun zerranda guztietan, 1463, 1468, 1519, falta da bakailoa. Badakigu kanpoan saltzen zela, baina hona grano bakar bat ere ez heltzea!

Tierra Fria. Hitz hori erabili zuten 1527ko kontratuan eta bera ere txarto idatzi zuen eskribauak (Tierra Firme), lehenengoz entzun zuela leku horren izena seinale. Sarri edo lehenago joan izan baziren Ternuara, kostaldeko eskribau lekeitiarrak ezagutuko zuen.

Izurritea. Izurritea agertu zen 1523an eta ez zen edozelakoa izan. Aldi-

ro suertatzen zen izurriteren bat, ohituta zeuden, baina San Juan Bautista egunean agertu zen hura oso gaiztoa izan zen. 1523, 24 eta 25ean bizirautea zen lekeitiarren jarduera bakarra. Baina badakigu (LUA-R52) 1524an eta 25ean ere Irlanda eta Ingalaterratik ibili zirela lekeitiarrak, “show must go on”, euren artean Rodrigo Arrieta Xirgoyrako arrantzan.



“De triomf van de Dood” (Heriotzaren garapena) xehetasuna. Pieter Brueghel zaharra, c. 1562. Museo del Prado. Oleoa.

1524an geunden Lucia Arteita eta senarra Francisco Ibarra izurriteak jota hil zirenean Ipidegi baserrian. Lekeitiotik alde egin zuten, baina...

...en su caseria de ypidegui... donde estaban huydos e ausentados desta dha villa porque en ella a la sazón habia grand pestilencia y moria mucha gente dell y como morieron de la dha pestilencia nynguna persona quiso enterrar ny tocar a sus cuerpos por que no se ynficionasen contagiasen de la dha pestilencia y por que se enterrasen en sagrado y no comiesen los perros e infuzionasen a la otra gente sus parientes y el pueblo de la dha anteyglia mandaron que los cuerpos de los dhos francisco e dona lucia fuesen enterrados debaxo de tierra aunque se hubiese de pagar grand cantidad de dineros a los enterradores y como nynguna persona les quiso tocar ny enterrar por no se ynficionar de la dha pestilencia la dha maria ochoa de la rretería y catelina de aldaola ya defunta se atrebieron a amortajar y enterrar los dhos cuerpos finados... los truxieron al cementeryo de la yglia de nra senora santa maria desta dha villa con grandísimo peligro y trabajo de sus personas y ende los enterraron debaxo de tierra porque a la sazón la dha villa no consentia enterrar semejante cuerpo finado dentro la dha yglia y saben...


ARCHV, Sala Vizcaya, Caja 640/3

1527ko bidaiak

Ez da marka makala 1527rako Ternuara joan izatea. Hemengo historialari batzuen ustez, Mariano Ciriquiain Gaiztarro euren artean, 1520. hamarkadako erdialdean hasi ziren hegoaldeko euskaldunak Ternuara joaten, baina ez da egon dokumenturik hori baieztatzeko, bakar-bakarrik auzi batean testigu batek gogoratzen zuena.

Marianok bere “Los Vascos en la pesca de la ballena” liburuan zioen: *“Hernando de Mena de 70 años, vecino de San Sebastian, con 55 de navegar, dijo que en su tiempo se había descubierto el trato y viaje de de Terranova, podía hacer 35 años poco mas o menos, y de 20 a aquella parte se seguían estos viajes a Terranova por la mucha ganancia que secaban, más que a otras partes donde solían ir”*. Ez diot meriturik kendu nahi Mariano Zirikiaini, baina honek komeni izan zitzaion testigua aukeratu zuen, beste testigu guztiek beranduago joan ginela zioten.

Hemen gatz, berandu, lekeitiarrak gara eta, horien laguntzan. 1527ra arte heldu gara, hurrengo, nork daki, ondarrutarrek edo bermeotarrek marka hobetu dezakete.



Warhaftige Contrafey einer wilden Frayben / mit ihrem Kindelein / gefunden in der Landtschafft
Tona terra genannt / vnd ges Amors bracht / vnd von maniglich allda offentlich gesehen worden / vnd noch zu sehen ist.

K. Westphalen

In diesen M. D. LXVI. Jar ist zu Amors ankomen zu Schiff auß Heeland / ein wilde frayben / ein kleine person / stumpt se dachwelein vnd ist geforniert vnd bekleyde gewest / wie diese figur anzeigen / vnd seindt gesunde worden in Tona terra / wos ein neue Landtschafft ist in alden vergangene jaren / von den frantzösischen vñ Portugalesen erst gefunden / vnd ist diese fraybe mit jr kind vñ jr Man von de frantzösischen / die auß diese landtschafft jr Schiffart gehabt vnd zu land komen sind / vñ fremde abent / worer g. sucht / angeroffen / vnd ist der Man mit ein pfeil durch sein leib geschossen worden. Democh wolte er sich nit gefangen geben / sondern keller sich manlich zur gegen wehr / vñ ward er in diesen scharmügel / von einem andern frantzösischen mit ein schlaefschwert / in der siten hart verwunde / dan am er sein eigen blut auß der siten in sein handt / vnd lezte das auß sein handt / vñ stellet sich noch gerünger zur gegē wehr dan zuvor. Endlich ward er in sein leib

le demassen gebaren vñd verwunde das er zur erdtsit vñ starb auch an diese verwundung / diser man war 12. schuch lang vnd hatte in 12. tagen 12. personen vñdracht mit sein eigen hand / frantzosen vñd Portugaleser dieselbig zu essen / dem se kein lieber fleisch essen / dann Menschen fleisch / vñd als se die fraybe erkommen / keller se sich als ob se ganz gesund / vñd vñmüdig were gewest / vñd jr kindt / das se verlassen solt / diereil se die Schiffen die zu schiff wölen führen vñd se hin weg zu führen / dann se das kindt so lieb hat / das se lieber jr Leben wolt verlieren / dann das kindt verlieren / Als se sich mit so vñmüdig keller / lieffen se jr ein wenig nach / da gieng se an den ort / da se jr kindt vorsetzt hat / vñd da war se besser zu frieden / dann vordis / da namen se die fraybe mit jr kindt / vñd fürten se hinweg / vñd niemandt von den frantzosen kñndt jr ein einich wort verstehen / oder auch mit jr durtz Wörtern reden. Man hat aber jr in 8. Monaten so viel gelohret / das se bekande hat / das se von vielen Menschen gesehen / jr kleider seindt von Seebonts fellen gemacht / auff die weisse / wie diese figur anzeigen. Die Halszichen diese se indt Angesicht hat / seindt gang blau wie Hühnelblaw / vñd die madden se jr / jr man wenn se jr zum woch nemen / dabey erkennen se jr vñd jr man / demt sonst lauffen se vñd einander wie das vñd vñd mann mag die zeichen mit einerley maner wider abtun / vñd diese zeichen madden se mit safft vñ einerley Kraut / da da im lande werth ist / jr leib ist gelb / braun / als die halbe Aoren / Die fraybe ist alt / wie se ist gefangen worden.

im Jar 66. im Augusto 20. Jar alt das kindt 7. Jar. Lasset vns Gott dem allmechtigen danken für sine Wohlthat / das er vns in seinem Wort erleude hat / das wie nicht so gar wilde Leut vñd Menschen fresser seindt / wie in dieser Landtschafft seindt / da die Weib gefangen vñd berauß gebracht worden / dem se gar nichts von dem rechten waren Gott wissen / seindt en schrit erger dem das vñd leben / Gott wolle se auch zu seinem erkenntnis bekeren / Amen.

Getruckt in Nürnberg / bey Hans Wolf / W. 16.

1567ko "posterra", Nuremberg-ko bertsioa. Ternuan harrapatutako inuit ama eta alabaxoaren erakusketaren iragarkia. Lehenengo "benetako" deskribapena izan arren, makina bat gezur kontatzen dira istorioa erakarkariago bihurtzeko.

Senarra, 12 oineko erraldoi kanibala eta hiltzailea zen. 12 gizon hil zituen 12 egunetan jateko asmoz. Lana izan zuten honekin akabatzen, gezia, ezpatak...

Emakumeak nahiago izan zuen bizia galdu alabatxoak bakarrik utzi baino, beraz biak ekarri zituzten Europarantz, Amberesera. Bitartean frantses apur bat ikasi zuen eta gizon ugari jan zituela kontatu zuen. Jantziak, foka-larruz eginak eta tatuajeak ere aipatzen dira. Gorputza berriz, horixka iluna zuten erdi moroen antzekoa.

Gizajale, basati, ellijigabeak, kristautu egin behar ziren.


Bakailaotan

Arrantzan egiteko sistema
bi zeuden eta beste bi kontserbatzeko:

Arrantza sedentarioa (pesca sedentaria). Itsasontzi nagusia ez zen erabiltzen arrantzan egiteko. Horretarako pinazak erabiltzen ziren kostaldetik asko urrundu beharrik ez zegoelako. Arrantza portura ekartzen zen eta han prestatzen zen arraina. Gatza, pazientzia (50 bat egun irakurri dut) eta airea behar ziren bakailoa ondo sikatzeko. Lekeitiarrok beste ezer ez, baina pazientzia soberan izan dugu betidanik. Curado, curadillo deitzen zen bakailo mota hau, "dry cod" ingelesez, eta badirudi lekeitiarrok aukeratu genuen sistema izan zela.

Arrantza ibiltaria (pesca errante). Itsasontzi nagusitik egiten zen arrantzan eta bertan prestatzen zen bakailoa, hau da, garbitu eta gatzetan jarri. Normala denez bakailoa ez zen sikatzeko behar beste eta horregatik ingelesek "wet cod" edo "green cod" deitzen zioten. Gaztelaniaz pasta hitza erabili izan da, euskaraz bakailo umela edo bustia deitu beharko genioke.

Bazituen bere abantailak: dena egiten zen bizkorrago, ez baitziren lehorrera bueltatu behar egunero. Horrela kostaldetik urrun zegoen bakailoan ere harrapa zezaketen -arrantza sedentarioan ez zen halakorik posible-, eta arrantza bako egunak gutxitu. Akabuan arrantza ugariagoa lortzen zen. Eragozpenak: baliteke inbertsio handiagoak eskatzea, ontzi handiagoak, hobeto prestatuak... eta bakailo "busti" hori. Ezin zen bakailo sikuaren kalitatera heldu, baina irakurri izan dut Europako iparraldean merkatu ona aurkitu zuela. Antza denez, Europako Hegoaldean arrakasta gehiago zuen bakailo lehorrak, kontserbatzeko aproposagoa zelako.




"Traité général des pesches..." Duhamel du Monceau, 1772.

Bakailo bustia Frantsesak, ez dakit hastapenetan hala zen, arrantza ibiltaria erabili zuten. Grabatuan tina antzeko tramankulu batzuek ikus daitezke karelean. Marinelek horietatik egingo dute arrantzan, ondo babesturik. Kontuan izan behar da grabatua nahiko berria dela 1772koa ("Traité général des pesches..." Duhamel du Monceau), eta ez dakigula sistema hau hasieratik erabili izan bazen ala hobetuz lortu bazen. Lana ontzian bertan egiten zen, horretarako gatza franku behar zen.

Bakailo siku Alboko grabatuan beste era agertzen da. Bakailoa lehorrean, bertan Ternuan, sikatzeko da. Ingelesak erabili zuten sistema hori, antza, gatzik ez zutelako, gaztelaniaz "hacer de la necesidad virtud". Frantsesak eta espainolak ez zuten arazorik, gatza soberan zuten. Marc Lescabortekek bere "Historia de la Nueva Francia" liburuan, 1609an, lehenengoz deskribatu zituen teknikak.



Herman Mollen bakailaotako eszena 1715 ean argitaratua bere "The world described" liburuan. Nicolas de Fer-en 1698ko Amerikako mapatik kopiatuta.



Captains corageous

Ruyard Kipling idazlearen kapitain ausarta Disko Troop zen, gureak Domingo Ibarra eta Rodrigo Arrieta ziren. Ez zuten horren izen dotorea, baina bai haren balentria. Zer dakigu haien kontura? Tamalez askorik ez. Ez ziren ospe handiko gizonak izan, lantxo honetan ari gara ezagutarazten.

Ez da lan erraza izan. Ez du laguntzen esaterako XVI. mendearen erdira arte Elizako sakramentu-erregistrorik ez egoteak edo notaritzako protokoloak urriak izateak. Gainera izen abizen arruntak dituzte (makina bat Domingo Ibarra eta Rodrigo Arrieta aurkitu ditut,) eta lustre bakoak dira (ospea eta aintza akaso oraintxe lortuko dute).

Egia esan, aurretik jarri ditut aitzakiak datorkizuen nahaste-borrastea zuritzeko.

Zer esanik ez da, esango dena ez dela behin betikoa eta ez dudala eskurik sutan jarriko, ez esaten dena gezurra delako, Domingo Ibarra eta Rodrigo Arrieta bat baino gehiago egon zirelako.

1520koak

Badirudi sasoi hartan beste askoren legez Irlandatik zebiltzala. Domingo Ibarra delako bat 1521ean pinaza-maestre legez Aranera (Irlanda) joan zen arrantzan Donostiako kapitain batekin. 1524an Rodrigo Arrieta delako bat (azkenengoz erabiliko dut **delako** ditxoso hori) Xirgoyra (Irlanda) joan zen Lope Ibañez Renteria (ondarrutarraren?) ontzian.

Gero gure kapitainak desagertu egingo dira (dokumentaziotik, jakina) 1527ko dokumentu horietan agertu arte. Ordurako kapitainak dira, lehen txoago Domingo behintzat pinaza-maestre legez agertzen zen. Kapitainak dira, baina ez eramango duten ontziaren jabeak. Ez da txikikeria, zenbat eta ondasun gehiagoren jabe zaren dokumentazioan agertzeko aukera gehiago duzu.

1530koak

1531n R^o Arrieta da San Pedro kofradiako maior-domoa. Urte berean Elizako kontuetan agertzen da, berak eta konpainiak bale-mihia erosiko dute. 1532an testigu legez agertuko zaigu Rodrigo Arrieta eta 33 urte zituela kontuan badugu, 1499 aldean jaio zela esan dezakegu.

1532an Domingo Ibarra kapitaina agertzen da Irlandarako bidaia bat prestatzen; 117 dukat utzi dio Juan Arrietak.

1536ko alardean biak agertzen dira. Urte horretan Rodrigo Arrieta sardina sasoiaren señoero eta saltzaille (bentero) modura agertzen da. Kontratu horretan testiguen artean Juan Arrieta Rodrigo Arrietaren semea agertzen da. Zenbat Rodrigo Arrieta zeuden?

Hamarkada horretan aipamenen bat agertzen da

Elizako kontuetan, mesura atalean, gatzarekin dabilta.

Hamarkada amaitzean "Yten fui a Vermeo por mandado de los señores del cabildo e rregimiento con una carta a me conçertar sobre la lengoa de valena que de halli truxo para esta fabrica RRodrigo de Arrieta e no me pude conçertar..."

1540koak

Rodrigo Arrieta 1541ean Martin Curruchiagaren ontzian doa (Irlandara), 1542an bere ontzian (jabe legez agertzen da, baina ez dut uste hala zenik, *amanuensearen* akatsen bat izango zen), 1545ean Juan Learen karabelan (Irlandara) eta 1549an Juan Andracaren ontzian.

1548an badakigu (LUA-R44, 177r) R^a Arrieta Irlandara joateko zela Castro Urdialeseko Sancho de Loyzagaren naoan, baina ontzia oraindik Lekeitiara heldu barik zegoenez, bitartean 9 ardo beltz upel eta 7 Rochelako ardo zuri upel deskarga nahi zituen gurasoen etxean, Arranegiko arrabalean. Aipamen honi esker ezagutzen dugu bidaia hori, Elizako kontuetan ez da agertzen eta. Irakaspena edo moraleja, fida zaitez Elizako kontuekin.

1549an Rodrigo Arrieta Lekeitioko alkatea da eta bere sinadura daukagunez, CSIkoen teknikak erabiliz eta sinadurak konparatuz 1527ko Rodrigo dela baieztatu dezakegu. Aurrera egin zuen duda barik, alkatea izatea ohore handia zen.

1550koak

1552rako hil da Rodrigo Arrieta (374 marabedi uzten dio Elizari).

Bitartean Ibarratarra galdu zaigu. Ez da Elizako paperetan agertzen, baina horrek ez du esan nahi ez zebilela arrantzan. Batek daki!

1570-71ko auzi batera jo dugu Ibarratarrak eta Arrietatarrak agertzen baitira. Familia biak senidetuta zeudela berresten digu. Domingo Ibarra delako bat Ana Arrietarekin ezkondu zegoen (Ana, 1558an testamentua egin zuenerako, alarguna zen) eta bi seme izan zituen, Juan Arrieta eta Domingo Ibarra (hau 1566an hila). Gure kapitaina Ana Arrietaren senarra zelakoan gaude. Domingo Ibarrak 1527ko bidaian, pinaza-maestre modura Juan Arrieta delako bat eraman zuen. Juan Arrieta hau agertuko da testigu legez eta baita armadore legez ere enpresa hartan (ez zen edonor, bazekien sinatzen). 1532an ere Juan Arrieta izan zen Domingori diru dexente utzi ziona. Egari zor, Juan eta Arrieta ziren garai hartan lekeitiar guztiak. Rodrigo kapitaina ere Arrietatarra zen. A zelako txokolatea! Jakingo dugu gehiago, denbora kontua izaten da. Bostehun urte egon gara ezertxo ere jakin barik, ez gara orain estutuko.

Furacanaren furia
Ifernuco iduria
Satan beltzac darabilla
untzien galtcen dabilla.

Dokumentuak

(Al margen: Sacado)./Contrato de entre Domingo de Ybarra e su conpañã de para Tierra Firme./

En el nonbre de Dios e de la Virgen Gloriosa Señora Santa Maria, su madre, amen.

Sepan/quantos esta carta de contrato vieren como en la villa de Lequetio, en casa de Domingo de/(tachado: Roma) Ybarra, **a dies e syete dias del mes de febrero de mill e quinientos e veynte e syete** años, en presençia de mi, Ochoa Vrtis de Olea, escriuano de la çesarea magestad y catolicas/ altesas del rey e de la Reyna, su madre, nuestros señores, en la su corte y en todos sus/ reynos e señorios, e del numero de la dicha villa, e testigos de yuso escriptos, de una parte Domingo/de Ybarra, vesino de la dicha villa, capitan, que plaziendo a Dios **yra en la nao de Lope Yvañes/de Renteria, vesino de Ondarroa**, para la **pesca de macallaos** (interlineado: **e vallengas**) a **Tierra (tachado: Fyrme) Frya** que/ dizen; e de la otra, Juan de Arrieta e Pedro de Hendaydi, el moço, e Ochoa de Cortaçar,/ vesinos de la dicha villa, e Juan Peres de Urrexty, vesino de Ondarroa, como (tachado: pinaçeros de) maestros/ de pinaças; e dixieron que heran concordos e ygualados para que con la ayuda de Dios/ los sobredichos maestros pinaçeros con sus pinaças ayen de yr e bayan con el/ dicho Domingo de Ybarra a la dicha pesca e lugar con sus pinaças, y en cada pinaça/ quatro conpañeros; e las condiçiones que pusieron entre sy son las syguientes:/


Primeramente, que los sobredichos **Juan de Arrieta e Pedro de Hendaydi e Ochoa de Cor/taçar e Juan Peres de Vrrexty, maestros de pinaças**, ayen de yr e bayan con el dicho/ Domingo de Ybarra para la dicha pesca de Tierra (tachado: Firme o) de Fria con sus pinaças,/ **y en cada pinaça quatro conpañeros mareantes**, pescadores suficien-tes, e aparejadas/ **las pinaças con sus aparejos suficien-tes e con sendas estachas de para vallengear**./


Yten, que **han de ser seys pinaças** con la pinaça que da el maestre. Y que **el maestre con/ su pinaça aya de servir de cosas e serviçios que el esguife (sic) a la nao deve servir**. E que **la/ pinaça (tachado: aya) del maestre aya de traer e traya en la dicha nao de buelta** para (tachado: esta) estas partes a riesgo e ventura del dicho maestre duepño de la pinaça, en el traer asy sy/ con tormenta echaren e dexaren a mal a la dicha pinaça. Este capitulo paso absente el maestre./ Yten, **que las otras cinco pinaças ayen de quedar e queden** (tachado: para) **en Tierra** (tachado: Fyrme o) **Fria** que dizen. E que el dicho Domingo aya de dar e **de por las pinaças, allende/ de la soldada de sus personas, sendos mareajes de todas ganancias** que Dios les/ diere (tachado: e allende por las personas suyas e trabajo oviese de dar e/ diese a los dichos maestros de pinaças aya de dar e de sendos mareajes/ para) **de la terçia parte** que los maestros de pinaças e marineros han de aver,/ e se reparten a los marineros por marineros, e los gormetes por gormetes, e los/ moços por pajes; e que asy se les reparta a cada uno lo que le cabe e viene.//


DOMINGO IBARRAREN bidaia



 Kontratua otsailaren 17koa, Ternuara martxo aldean joaten zirelako.


 Domingo Ibarra lekeitiarra da kapitaina, baina ontzia Lope Ibañez de Renteria ondarrutarrena da. Ez da gure kapitaina ontziaren jabea eta ez dirudi beste dokumentu batzuen araberako ontzi jabea izan zenik. Pinaza jabea bai seguruenik.


 Bakailaotan eta baleatan doaz. Halakoak ziren hasierako bidaiak, mistoak.


 Tierra Fria Tierra Firmerekin nahasten du, seinale eskribauak sekula ez duela entzun izen hori. Nik neuk ere ez dut inon ikusi Tierra Fria hitza. Dena dela, Terra Novaz ari dira, beranduxeago bidai bereko beste dokumentu batean hitz hori erabiltzen baita.


Obligacion de Domingo de Mutyo./


En Arranegui, rebal de la villa de Lequetio, a diez e ocho dias del mes de febrero de mill e quinientos e veynte/ e syete años, en presençia de mi, Ochoa Vrtis de Olea, escriuano de su magestad e catolicas altesas del rey e/ de la Reyna, su madre, nuestros señores, e del numero de la dicha villa, e testigos de yuso escriptos, Domingo de Ybarra,/ capitan que yra, plaziendo a Dios, Nuestro Señor, en la nao de Lope Yvañes de Renteria para **Tierranova**/ a la pesca de macallaos, dixo que...

 Lau pinaça-maestre kontratatuko ditu eta pinaça bakoitzean lau lagun (maestreakin 5 lagun bakoitzean?). Hala ere sei pinaça izango dira guztira.

 Pinazak ondo hornituta baita baleatan egiteko ere (estachas de para vallengear).

 Bostgarren pinaçak, hau maestrearen kontura, ontzi nagusiari zerbitzua prestatuko dio (esguife). Ternuatik bueltan ekarriko dute.

 Sei garren pinaça bat ere egon badago, arrantzan egingo du, baina ez dakigu zeinek jartzen duen. Arrantzan egiten duten bost pinaçak Ternuan geldituko dira, antza.

 Pinaça-maestreek euren soldataz aparte pinaçak eramatearren marea bat irabaziko dute irabazien herenetik.

+ Domingo de Ybarra

(Fol.rº) Yten, que la conpañã e marineros de la dicha nao ayan de aver e llebar e llieven/ e gozen de la terçia parte de todas ganancias de pesca de macallaos e de vallas/ e de mastes (interlineado: e ganancias de trobaduras que Dios les diere); y que desta terçia parte sean pagados el **capitan**, contando **dos ma/reajes**; y el **maestre**, (tachado: contando dos mareajes) **vn mareaje**; e todos **otros officia/les, sendos mareajes**, eçcepto el capitan, que llieva e aya de llevar dos mareajes;/ con que **toda costa de baxilla** que se hisiere y entrare para las vallas **sea obligado de/ pagar el dicho capitan; e asy mismo de fazer las armas** (interlineado: e arpones) **de para vallenear** syn costa/ de los maestros pinaçeros e marineros e conpañã. E que asy mesmo, **las ventajas quel/ tonelero y el escarpero** llievaren afueras de sendos mareajes ayan de pagar e **pague/ el capitan** syn parte de la conpañã de la dicha nao./

Yten, que los **dos pilotos** que fueren en la dicha nao ayan de entrar y entren con sendos/ mareajes en el terçio de la conpañã; e que todas otras **ventajas que ovieren de aver/** e llebar aya de pagar y **pague el dicho Domingo de Ybarra, capitan**; y que el vno/ de los dos pilotos aya de yr e baya a la pesca./


Yten, que el **barvero** que ha de yr en la dicha nao aya de llevar e **llieve vn mareaje del terçio/** que ha de aver la conpañã, asy como otro marinero./


Yten, que ayan de yr e bayan en la dicha nao **veynte e nueve onbres marineros de messa/ e seys servientes de gormetes e pajes, que son treynta e çinco personas**; e que **sy/** allende e mas de las treynta e çinco personas que han de yr **el dicho capitan metyere/ otras personas, que el dicho capitan les aya de pagar** e pague de su propia hazienda las/ soldadas, syn parte alguno del terçio de la conpañã; e que las treynta e çinco per/sonas de suso ayan de llevar e llieven el terçio de todas ganancias que Dios les diere,/ asy de **pescadas** como de **vallas e de mastes**, entrando en el dicho terçio las ganancias/ e mareajes de las pinaças; y que el capitan llieve dos mareajes, e todas otras/ personas e officiales de la nao, sendos mareajes.


Yten, que los sobredichos maestros pinaçeros, con sus pinaças e aparejos e marineros sufi/çientes, ayan destar e esten prestos y aparejadas de oy en ocho dias primeros siguientes./


Yten, en quanto a los **derechos que tienen** (interlineado: e han de aver) **Santa Maria de Ondarroa** (tachado: e d) **e Santa Maria de Lequetio/ e Sant Pedro de Lequetio**, que alli do se allare que es de razon de pagar los derechos, alli sean pagados./

(Fol.vº) Yten, que al dicho Domingo, capitan, sean obligados los sobredichos maestros de/ pinaças e marineros dellos (interlineado: de servirle) desde que hisieren vela desta costa fasta llegar en/ Tierra Fria, y en ella fasta la voluntad del capitan; e que fecha su pesca/ e servido **el viaje de buelta ayan de yr e bayan a Yrlanda a tomar la platyca./ e dende a Bristol, e de Bristol a Henantes, y de Henantes a la Rochela**; y que/ en todo este tiempo **el dicho Domingo**, (tachado: aya) **capitan, aya de dar e de de comer e beber/ e todas cosas de mantenimientos neçesarios por tienpo de seis meses**. Y que a cada maestre/ de pinaça aya de dar e de para sy e para su conpañã **doze libras de azeyte**. E mas, que/ **llegados en Rochela para Tierra Fria aya de meter e meta el dicho Domingo en la dicha nao, de vino, segund que otros hizieren./**


 Irabazien herena erabiliko da soldatak banatzeko: Kapitainak marea bi, maestreak marea bat, beste ofizialak marea bat. Hala ere, kapitaina baleatako arma (arpoiak esaterako) eta "baxilla"-z arduratu beharko da eta upelgile eta "escarpero"-en sariak ere bere patrikatik ordaindu beharko ditu.

 Piloto bi joango dira bidaian eta horien sariak ere kapitainaren kontu. Pilotoetatik bat arrantzan joan behar da, pinazaren batean?


 Barberoa, zirujaia daramate. Ez dut uste Irlandarako bidaietan eramango zutenik, luxua dirudi, baina Ternua oso urrun eta arriskuz beterik zegoen. Honek ere marea bat.

 35 lagun guztira, 29 gizon (marineros de mesa) eta 6 mutil-txiki (gormetes e pajes). Kapitainak jende gehiago eraman nahi izango balu bere kontura/lepotik.

 Pescadas, vallas, mastes.

 Ondarruko eta Lekeitioko elizak aipatzen dira. Arrantza eskubideak zituzten (ehunena) eta ontzi honek Ternuatik bueltatuz gero, Ondarrun, ontzia hangoa zelako, eta Lekeition, kapitaina hemengoa zelako, ordaindu beharko luke. San Pedro kofradiak ere bere eskubideak zituen.

 Bueltako bidaia (plana noski) ezagutzen dugu: Ternua- Irlanda- Bristol- Henantes (Nantes)- Rochela- ETXERA.

 Jana eta edana kapitainaren kontura. 6 hilabeteko bidaia! Pinaza bakoitzeko 12 libra olio. Rochelan erosiko du Ternuarako ardoa (segun que otros hizieren). Beste batzuek egiten dutena egiten gaude, ez gara lehenak!

Yten, **que los marineros e maestros de las dichas pinaças** al dicho Domingo **ayan de ayudar/** e faboresçer **en adreçar e linpiar e salar las pescadas e vallenas** en todo lo que pu/dieren cada vez que fuese nesçesario, y el (tachado: les) dicho Domingo, capitan, les manda-se, e/ e (sic) para lo de suso aya de quedar una pinaça e conpañã della en la nao, e sy mas fuere/ nesçesario, mas tambien. E que asy cunplan so pena de çinquenta ducados doro, para la camara de su magestad/ los medios dellos, e la otra mitad para la parte o partes ovedientes./

E para las cosas susodichas asy tener e guardar e conplir e pagar e todo lo contenido en este con/trato y escriptura, e para no yr ni venir contra esta carta ni contra lo en ella contenido en tienpo alguno/ nin por alguna manera so la dicha pena, dixieron que el dicho Domingo, capitan, se obligaba contra los/ dichos maestros de pinaças e conpañã, e los dichos maestros de pinaças e marineros de suso nonbrados contra/ el dicho Domingo de Ybarra, capitan, obligaban con sus personas e bienes, muebles e rayzes, avidos e por/ aver, so la dicha pena, e de los dapños e costas e menoscabos que se le syguieren (tachado: en los cobrar) a cabsa de no conplir/ lo contenido en esta carta a la parte o partes que se le siguieren.

E para que asy les hisiesen conplir, daban e dieron poder conplido/ e bastante sobre sus personas e bienes a todos juezes e justiçias de sus magestades e de otros qualesquier reynos e señorios de/ qualesquier partes, reynos e señorios (interlineado: sometiendose a las jurisdicçiones dellos, renunçiando su propio fuero, jurisdicçion e domicili), para que a pedimiento de la parte o partes que guardaren e conplieren este contrato e condiçiones/ del en la parte o partes que no guardaren e conplieren; y en sus personas e bienes mandasen haser e hisiesen entrega y exsecu/çion por la dicha pena e costas e dapños, e los bienes exsecutados los mandasen aforar, rematar e vender, e de su presçio e valor/ mandasen haser e hisiesen buen pago de prinçipal e pena del doblo e costas e dapños e menoscabos a tan bien e/ conplidamente como sy fecho entre partes devido proçeso ante juez competente por su sentençia definitiva fuesen, a conplimiento/ e paga de todo lo de suso condepnados; (tachado: a conplimiento e paga de todo lo de suso) e la tal sentençia fuese por ellos consentyda e pasada/ en cosa juzgada e della no oviese lugar apelacion ni otro remedio alguno.

E sobre lo que dicho es dixieron que/ renunçiaban e renunçiaron de su fabor e ayuda todas leyes, fueros e derechos, vsos e costumbres e prematycas, franquezas,/ libertades e previllejos e ferias de pan e vino e sydra coger y enbasar, e dias feriados e mercados francos e por/ franquear y exçeçiones e defensioniones e buenas razones que contra esta carta en fabor dellos fuesen e pudiesen ser/ que no les valiese en ningund tienpo; espeçialmente dixieron que renunçiaban la ley del derecho que desia que general renunçiaçion de leyes que ome faga non vala./

Testigos que fueron presentes, Pedro de Ateuren, vesino de Ondarroa, e Martin de Elormendy e Martin de Sorarte, vesinos/ que dixieron ser de Guetaria. E conozco a los otorgantes, e firmaron Juan de Arrieta e Juan Peres de Vrrexti por si;/ e por testigo, Pedro de Ateuren./


Juan de A/rryeta (rúbrica). Pedro de Ateuren (rúbrica). Juan Peres de Vrrexti (rúbrica).// LUA-DJ001-04



Pinazak arrantzaz arduratzen dira, baina kapitainak eskatuz gero arraina garbitzen eta prestatzen lagundu beharko dute; gutxienez pinaza bat horretan ibiliko da. Gatz erabiltzen zuten (salar), besterik ez dugu esaten.



Irakurtzen ez den zati horretara heldu gara (gaur egun letra txikia deritzoguna).



Ondarruko eta Getariako testiguak agertzen dira, seinale enpresa ez zela edozelakoa (35 lagun, 6 hilabete, milaka miliatara). Ternua urrun geratzen zen, arriskuz beterik zegoen eta ez zen ondo ezagutzen.

(Fol.vº) Contrato de entre Rodrigo/ de Arrieta e su conpañã./

En el nonbre de Dios e de la Virgen Gloriosa Señora Santa Maria, su madre, amen.

Sepan quantos esta/ carta de contrato vieren como en Arranegui, en casa de Rodrigo de Arrieta, a **veynte e quatro dias/ del mes de febrero** del nascimiento de Nuestro Salvador Ihesu Christo de mill e quinientos e veinte e syete/ años, en presencia de mi, Ochoa Vrtis de Olea, escriuano de la çesarea magestad y catolicas altetas del/ rey e de la reyna, su madre, nuestros señores, e del numero de la dicha villa, e testigos de yuso escriptos:/ de una parte Rodrigo de Arrieta, capitan, que plasiendo a Nuestro Señor Dios yra **en la nao de Sancho/ Martines de Apioça, e Juan Peres de Apioça, vesinos de Vermeo**, para la pesca de Tierra Fria; e de la otra, / **Pedro de Ormaegui e Juan de Arostegui e Pedro de Alça e Pedro de Leçama e Martin de Vrìbe/ e Amador de Elexate e Martin de Motrico (interlineado: e Martin de Liconã)** (tachado: e dixieron que heran igoalados entre sy para/ yr a la pesca de macalaos e vallenas a Tierra Fria, e las condiçiones que pusieron son/ la syguientes) e **Juan Nuel, piloto, e Domingo de Çea e Domingo de/ Trumaya e Domingo de Leçama e Sancho de Ocabiõ, vesinos de Lequetio; e Juan Peres de Goyena, vesino de Gardata,** / que presentes estavan; e dixieron que heran ygoalados entre sy para que en uno ayan de yr e bayan a la / **pesca de macalaos e vallenas a Tierra Fria.**

E las condiçiones que pusieron entre sy capitan e / conpañã son las syguientes://

(Fol.rº) Primeramente, que ayan de yr en la dicha nao **çinco pinaças con el batel** (interlineado: para pescar que), y que/ **el capitan les aya de dar e de el batel syn mareaje**, franco; e **los maestros/ de pinaças** le ayan de dar e den prestos e suficiẽtes (interlineado: de todos sus aparejos) e con sendas estachas de ballenear.

Yten, que **el dicho capitan aya de llevar e llieve dos mareajes** por su persona/ e que todos **otros ofiçiales, maestre e pillotos e otros, ayan de llevar/ e llieven sendos mareajes** e no mas, e que todas **otras ventajas que ovieren/ de aver les pague el capitan a sus ofiçiales de lo suyo./**

Yten, que el dicho capitan les aya de dar e de **a la conpañã la terçia parte/ de toda pesca de macallaos e vallenas, e de las ganancias de mastes e/ de sayn e toda otra trobadura** que Dios les diere; y que desta terçia parte el/ capitan de sus mareajes, (tachado: dos) y los otros ofiçiales ayan de ser pagados, e la/ conpañã e todos los marineros de sus mareajes; e los gormetes e pajes de lo/ que han de aver; y que sean e **ayan de ser veynte e syete personas** mayores e menores, / vno mas o menos; e que de la terçia parte de la conpañã se ayan de pagar los mareajes de las pinaças./

Yten, que el **dicho capitan les aya de dar de comer e beber suficiente- mente,** / del dia que partieren e hisieren vela fasta servido el viaje, fazer manta/ mayor de **pan e vino e sidra e carne e azeyte** e otras cosas neçesarias, e/ que aya de meter en la nao **çinco pipas (interlineado: de vino) para la conpañã e una pipa para sy el dicho capitan./**

Yten, que (interlineado: los marineros e conpañã) al dicho capitan ayan de servir e sirvan en todo lo posible dende que/ **hisiesen vela desta costa fasta llegar en Rochela e dende en Tierra Fria; e fecha/ la pesca fasta llegar de buelta en Yrlanda; (interlineado: e si paz ouiere, dende a) en Henantes e Rochela o Ruan:/ e (interlineado: sy ouiere guerra, a Bristol; e)** que sy fuere menester **los conpañeros de las pi-**

RODRIGO ARRIETAren bidaia

Otsailaren 24koa da kontratua, Domingorena baino as- tetxo bat beranduagokoa. Martxoan joateko asmoa izango zuten hauek ere.

Rodrigo lekeitiarra da kapitaina, baina ontzia Bermeokoa da. Badirudi lekeitiarrek ez dutela ontzi apraposik horretarako edo oraindik ez zaiela interesatzen halako enpresa arriskutsuak.

Hainbat lekeitiar agertzen dira: Pedro de Ormaegui, Juan de Arostegui, Pedro de Alça, Pedro de Leçama, Martin de Vrìbe, Amador de Elexate, Martin de Motrico, Martin de Liconã, Juan Nuel, piloto, Domingo de Çea, Domingo de Trumaya, Domingo de Leçama eta Sancho de Ocabiõ eta gardatar bat Juan Perez de Goyena

Hau ere bidaia mistoa, baleatan eta bakailaotan.

Eskribauak ikasi du Tierra Fria toponimoa, ez du hutsik egiten.

6 pinaza eramango dira beste bidaian legez. Kapitainak batel bat eramán beharko du bere kontura eta irabazi bari- rik. Badirudi ibarraren bidaian maestreak eramán behar zuen pinaza ere batela izango zela.

Pinaza- maestreak pinazez arduratuko dira, ongi horni- tuta egon beharko dira (prestos e suficiẽtes): aparailuak (aparejos) eta sokak (estachas de ballenear)

Partila: kapitainak marea bi, ofizialak (maestreak eta pi- lotoak euren artean) marea bat. Sariak baleude kapitaina- ren kontura.

Soldata guztiak irabazien herenetik datoz. Ez digu kon- tratu honek argitzen beste bi herenak nola banatzen ziren. Bakailao, balea, maste, lumera eta trobadurak aipatzen dira.

27 lagun guztira; bat gora, bat behera. Domingorenean 35 ziren.

Kapitaina arduratu behar janariarekin. Ogia, ardoa, sa- gardoa, okela eta olioa aipatzen dira. Bost pipa ardo tripu- lazioarentzat (conpañã) eta bat kapitainarentzat.

Bidaia: Euskal Heritik Rochelara (Arroxela), hemendik Ter- nuara. Ibarra kapitainak ere Rochelan erosi behar bazuen ar- doa norabide bera hartu zuen.

Ternuatik bueltan lehenengo Irlandara, gero bakea egonez gero Frantziara, Henantes, Rochela edo Ruanera eta gerra ba- lego Ingalaterrara, Bristolera. Gerra aipatzen da, garai hartan Frantziaren kontrako gerra edozein momentutan piztu ahal zen. Orduan ingelesekin hobeto konpontzen ziren.

naças de una o de dos o tres/ pinaças se queden syn yr a la mar fasta adreçar e linpiar e salar pescadas/ y vallasas e otras cosas./

Yten, que (interlineado: el dicho capitan) aya de dar e de a cada maestre de pinaça para su conpañia doze libras/ de azeyte; y que la conpañia le este presta para de oy en çinco dias syguientes, los maestros de/ pinaças con sus pinaças e aparejos, e los marineros con sus personas, ropas e aparejos./

Yten, que sy servido el biaje de la pesca de Tierra Fria de buelta, llegados en Yrlanda o en/ Bristol o en Rochela, o doquiera que hisiere la dicha nao derecha descarga e manta mayor/ (tachado: que to), sy no se concertaren con el maestre para yr a otra parte (interlineado: a servir otro viaje) e oviere la nao de bolver para/ España, que los marineros sean obligados de le ayudar e servir a traer la nao para España, con tal/ que los marineros puedan cargar e carguen en la dicha nao la terçia parte (tachado: que hayan de aver) por sus soldadas/ e mareajes, es a saber, la terçia parte de la nao que puedan cargar e no mas.//

(Fol.vº) (Tachado: E para conplir esta escriptura e condiçiones, obligaron so pena de çinquenta ducados doro, medios para la camara/ de sus magestades e medios para la parte o partes ovedientes).

Yten, que de toçino aya de llebar e lliebe el dicho capitan (borrado: de toçino) (interlineado: en la dicha nao) tanto quanto llevaren/ los de San Juan de Lus en semejantes naos./

Yten, que aya de traer e traya una pinaça de buelta el dicho capitan en la dicha nao, en riesgo/ e ventura del duepño de la pinaça./

E para las cosas e condiçiones susodichas asy tener e guardar e conplir, mantener e pagar en todo e por todo,/ segund e de la manera que dicha es de suso, el dicho Rodrigo de Arrieta, capitan, contra los sobredichos e consortes/ e marineros que han de yr con el, e los dichos marineros de suso nonbrados, contra el dicho Rodrigo, dixieron que obligavan/ e obligaron con sus personas e bienes, muebles e rayzes, auidos e por aver, so pena de çinquenta ducados doro, medios/ para la camara de sus magestades e los otros medios para la parte o partes que guardaren e conplieren este contrato e condiçio/nes del, e allende de pagar todos dapños, costas e menoscabos que seguiere a la vna parte o a las otras por falta de no/ conplir este contrato.

E para su conplimiento y exsecuçion, por esta carta daban e dieron poder conplido e bastante sobre sus/ personas e bienes a todos juezes e justiçias de España e de todos otros reynos e señorios, sometiendo a las jurisdicçiones/ de cada vno dellos, renunciando su propio fuero, jurisdicçion e domicilio e la ley sit conbenerit, para que a pedimiento de la parte/ o partes que guardaren e conplieren este contrato, en las personas e bienes de los que no conplieren e guardaren, mandasen haser e hisiesen entrega/ y exsecuçion; e los bienes exsecutados los mandasen aforar e rematar segund fuero do acaesçiere; e de su valor manda/ haser buen pago de prinçipal e pena del doblo e costas (tachado: a tan bien) e dapños e menoscabos que se les syguieren e recresçieren, a/ tan bien e conplidamente como sy sobre lo de suso, fecho debido proçeso entre partes ante juez competente, fuesen condepnados e la/ tal sentençia fuese por ellos consentyda e della no oviese lugar apelacion.

E dixieron que renunciaban todas leyes, fueros e derechos, vsos/ e costumbres e prematycas, franquezas e libertades e preuillejos de su fabor, e la lei del derecho desia que general renunçiaçion de leyes non vala./

Testigos, Juan de la Plaça e Juan de Goyo e Furtuño de Artaçabiribill e Domingo de Baquio, vesinos de la dicha villa./

Juan Nuel (rúbrica). Rodrigo de Arrieta (rúbrica). Juan de la/ Plaça (rúbrica). Juan de Aros/tegui (rúbrica). LUA-DJ001-04


Pinazetako marínelek esku bat bota behar zuten arraina prestatu (adreçar e linpiar e salar) behar zenean eta hori lehorrean egiten zen, ez itsasontzian (se queden sín yr a la mar). Interesgarria da jakitea gatza erabiltzen zela kontserbatzeko (beharbada Rochelan erosiko zuten). Badirudi lehorrean prestatzen zuten arraina sikatzen/jartzen zutela (dry cod).



12 libra olio pinazako.

Bost egun bakarrik dute arrantzaleek gertu egoteko. Ibarreneak gehitxoago, zortzi egun, baina Arrietarenak beranduago dabilta. Pinazak, aparailuak eta arropak aipatzen dira.

Bueltan Irlanda, Ingalaterra edo Frantziako porturen baten deskarga egin ondoren, ontzia Espainiara bueltatu behar izanez gero marínelek lagundu behar zuten. Horren truke ontziaren herena kargatu lezakete



Urdaia Donibane Lohitzunekoan erara eramango dute, seinala hangoek egiten dutena gu geu egiten gaudela, baina beranduxeago. (tanto quanto llevaren/ los de San Juan de Lus en semejantes naos).



Kapitainaren pinaza agertzen da, bueltan ekarri behar dena. Besteak, beraz, badirudi bertan geratuko direla. Pinaza hura kontixu lehenago aipatutako batela izango zen, beharrezkoa jendea porturatzeko, mandatuak egiteko...



Gero zigorrak datoz.



